



## INTERPRETAZIO-ZENTRO, GIDARI ETA BIDAIA-AGENTZIEN MAHAIA

2024ko apirilaren 9

### GAI-ZERREDA:

- ✓ Ongi etorria.
- ✓ Sektorearen egungo egoeraren azterketa
- ✓ Oraingo proiektuak:
  - 2023 eta 2024ko kontrataziorako laguntzak
  - Getxo: helmuga turistikoa adimendunerantz aurrera
  - <Getxoz gozatzeko planak 2024> kanpaina
  - Flysch Bizkaia proiektua
  - Turismo-sektoreko berariazko aholkularitza- eta prestakuntza-programak
  - DEAPIE interpretazio-seinaleen proiektua; aurrerapenak
- ✓ Ideia eta proposamen berriak

### BERTARATUAK: (% 48)

DEITUTAKOAK		BERTARATUAK	ETORRI EZ IZANA	
			Arrazoiak emanda	Arrazoiak eman gabe
Smartin Bilbao	Saioa Martin			X
Wilextours	Pablo Perez		X	
Go Basquing	Iñigo García-Valenzuela	X		
Geotxiki	Joseba Betanzos (Aintzane Goffard-en izenean)			X
Ekobideak	Imanol López		X	
Ekobideak	Bárbara Casas	X		
Iparraldea – turismoko	Josu Abeytua	X		



ordezkaritza				
Bizkaiko transbordadorea	Ainhoa Sarriegi		X	
Getxo Tours	Unai Celaá	X		
MICE Design	Virginia Pérez	X		
Cristina Laiseca ordezkaria	Cristina Laiseca		X	
Bilbao Food Safari	Oihana Oribe	X		
Punta Begoña Galeriak Fundazioa	María Peraita		X	
Getxoko Udala - Ekonomia Sustapeneko Arloa	M.Z.	X		
	Rubén Justicia	X		

## EDUKIAK

### 1. Bertaratutakoei agurra eta sektorearen egungo egoeraren azterketa.

Mirene Zabalgogezkoak (M.Z.), Ekonomia Sustapeneko Arloko teknikariak, ongietorria eman die bertaratutakoei eta barkamena eskatu du Turismoko teknikaria ezin joateagatik. Ondorioz, adierazi du mahaian argitu ezin diren zalantzak eta iradokizunak idatziz jasoko direla eta ahal denean erantzungo direla.

Ondoren, udako denboraldiaren egoera nolakoa izan den aztertu da eta sektorearen ikuspegiak jorratu dira.

### 2. Informazioa hurrengo gaiei buruz:

#### a) 2023 eta 2024ko kontrataziorako laguntzak

M.Z.-k, Ekonomia Sustapeneko Arloko teknikariak, jakinarazi du 2023an emandako dirulaguntzen kopurua: hamasei laguntza eman ziren; horietatik sei (laguntzen herena baino gehiago) izan ziren merkataritzarako, lau ostalaritzarako eta sei zerbitzuen sektorerako. Horrez gain, adierazi du deialdi berria atera dela aurten baina udalak ezin dituela azarora arte argitaratu deialdiaren oinarri espezifikoak.

M.Z.-k proposatu die aurreko deialdiko baldintzak eta betekizunak begiratzeko Getxoko Udaleko webgunean, ez baitira asko aldatuko edizio berrian.

[Informazio gehiago.](#)

#### b) Getxo: helmuga turistiko adimendunerantz aurrera

M.Z.-k, Ekonomia Sustapeneko Arloko teknikariak, jakinarazi du Helmuga Turistiko Adimendunaren (HTA) zigilua eman diotela Getxori; programak helmugan lehiakortasuna eta bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetzea du helburu, gobernantzaren, berrikuntzaren, teknologiarren, jasangarritasunaren eta



irisgarritasunaren bitartez. Proiektuko hurrengo fasean zigilu hori aitortuko diete enpresei.

Barbara Casasek galdetu du ea programan parte hartzeko nahitazko betekizuna ote den Getxon enpresa bat izatea ala nahikoa ote den Getxon lan egitearekin. Adierazi diote honako helbide elektronikoa honetara bidali behar dituela galderak: [turismokalitatea@getxo.eus](mailto:turismokalitatea@getxo.eus).

Iñigo García-Valenzuelak (Go Basquing) eskerrak eman nahi dizkie Turismoko teknikariei, proiektu-mota horiei lotutako komunikazioan eta kudeaketan egindako lanagatik.

Nolanahi ere, sektorearekin jarriko da harremanetan arloa, xehetasun gehiago emateko. [Informazio gehiago](#).

### **c) <Getxoz gozatzeko planak 2024> kanpaina**

M.Z.-k, Ekonomia Sustapeneko Arloko teknikariak, jakinarazi du dagoeneko argitaratu direla planak: [Getxo - Zer egin - Zer egin](#). Gainera, jakinarazi du Getxo FITUREn egon zela plan horiekin eta Flyscharen proiektuarekin.

Barbara Casasek adierazi du maketazioa hobetu egin dela aurreko urtearekin alderatuta. Askoz modernoagoa, intuitiboagoa eta garbiagoa da, eta asko laburtu da. Alabaina, iradoki du komeni dela Getxo Kosta eta Bote programen argazkien kokapena berrikustea, edizio berriari begira.

Oihana Oribek ez daki ziur bere zerbitzuak programan sartu ahalko ote dituen. Esan diote Turismo Bulegora deitzeko, argitzeko.

### **d) Flysch Bizkaia proiektua**

Aditzera eman da Flyscharen webgunea martxan dagoela eta FITUREn aurkeztu zela: Bizkaiko flyscha. Horren harira, Virginia Pérezek galdetu du flyscharen inguruan egin diren jardueren funtzionamenduari eta emaitzei buruz.

### **[Informazioa helaraztea.](#)**

Barbara Casasek L2 laguntzak eskatu zituen (2023. urtea), oraindik ordaindu ez duten ohiko zerbitzuei eta enpresei zuzenduta dagoena. Mirenek jakinarazi du dagoeneko berrikusi direla eta laster jakinaraziko direla ebazpenak.

### **e) Turismo-sektoreko berriazko aholkularitza- eta prestakuntza-programak**

M.Z.-k gogorarazi du udalak turismo-sektoreko berriazko aholkularitza- eta prestakuntza-programak eskaintzen dituela, eta parte hartzera animatu die.

Bilbao Food Safaryko Oihana Oribek esan du Getxolanen komunikazioak jasotzeari utzi diola. Hurrengo komunikazioetarako, haren helbide elektronikoa egiaztatu eta datu-basean sartuko da.



## f) DEAPIE interpretazio-seinaleen proiektua; aurrerapenak

Ezarritako ibilbide guztien berri eman da, eta erabaki da webgunera sartzen diren bisita-kopuruen gaineko datuak bidaltzea, ondo ote dabilen jakiteko.

Barbara Casasek aldarrikatu du parekotasuna egon behar dela ibilbide horiek sortzean, berdintasuna bermatzeko.

Ikus gehiago: [Deapie - Ibilbide autogidatuak](#)

## 3. Ideia eta proposamen berriak.

Unai Celáak adierazi du turismo-sektorea oso pozik dagoela Athletic Clubeko finalak izandako eraginarekin ; izan ere, ikusgarritasun handia izan du komunikabideetan eta hobetu egin da Bizkaiko turismo-jarduera. Ondoren, esan du turismo-sektorean dagoen susperraldi ekonomikoaren ondorioz hobetu egin dela Bizkaiko txikizkako agentzia independenteen elkarte berria, VIVAE. Ildo beretik, adierazi du elkarte horren bidez produktu propioa egingo dutela turismo-talde handietatik bereizi daitezen enpresak. Gainerako ordezkariak bat datoz sektore horretan susperraldi ekonomikoa egon dela adieraztean.

Oiana Oribek (Bilbao Food Safari) adierazi du kalitate-prezioa asko jaitsi dela Bilbon nahiz Getxon eta tourren ibilbidea aldatu behar izan dela prezioak doitzeko.

Josu Abeytuak Arrigunaga eta Ereagako txiringitoen gaur egungo egoerari buruz galdetu du. M.Z.-k esan du horren emakida kudeatzen duten arloei galdetuko diela (Ingurumen Arloa eta Getxo Kirolak).

Iñigo García-Valenzuelak (Go Basquing) Arriluze Hotelaren irekieraren berri eman du, eta Bizkaiko ikono gisa deskribatu du, Donostiako Maria Cristina Hotelaren maila berean dagoena, zeinaren garrantzia nabarmendu behar baita Getxon. Hori dela eta, Iñigo García-Valenzuelak eskatu du udala arduratu dadila estrategia bat ezartzeaz hotela zabaldu izanaren ondorioz aurrerantzean etorri ahalko den turismoa erakartzeko, oraintxe bertan Getxoko harrera-zerbitzuak bere ustez ez baitaude profil-mota horretarako prest.

M.Z.-k esan du estrategia bat ezarri ahal izateko lehenik eta behin interesgarria izango litzatekeela jakitea bisitari horiek zer kontsumitzen duten eta zein helbururekin datozen ala Getxora gaua igarotzera soilik ote datozen eta hasieratik ibilbidea antolatuta izanik ote datozen. Egiteke dagoen zeregina.

Ildo beretik, ados daude guztiak Getxoko eskaintza gastronomikoaren kalitateak izugarri egin duela behera esatean eta nabarmendu dute beharrezkoa dela erdigunean dagoen eta sukaldea daukan toki bat izatea, bezeroari eta turistei harrera egiteko prestakuntza eta turismo-prestakuntza eskaintzeko.



Portu Zaharreko Emakumeen Etxea zertarako erabiltzen den galdetu dute, bai eta erabilera horietarako alokatu ote daitekeen ere.

Barbara Casasek BasqueTour zerbitzuko ekintza-planen edukiak aipatu ditu eta adierazi du arduratuta dagoela informaziorik ez dagoelako aurten egin den apustu berriari buruz, Golf Tourism. Informazioa bidaltzea.

Oro har, bertaratutakoek adierazi dute ez daudela ados Muxikebarri ekitaldi turistikoetarako ezin erabiltzearekin.

Iñigo García-Valenzuelak (Go Basquing) proposatu du ATRAE turismoari buruzko elkartearekin hasia lankidetzan.

Bertaratutakoek gurutzaontzietan buruzko informazioa eskatzen dute (bidali den informazioa heltzen zaien egiaztatu behar da), bai eta adierazleak ere.

Azkenik, Virginia Perezek galdetu du ea udalak zerbait ote dakien Espainia Berdeko Ekoturismo Korridorearen garapenari buruz, Europako Next funtsekin diruz lagundutakoa. Halaber, interesa adierazi dute udalerrian bizikletetarako ibilbide turistikoak egiteari buruz.

Virginia Perezek proposatu du turismo-azoka edo -ekitaldi bat egitea Getxon, udal-programa eta -plan guztien berri emateko herritarrei.

Oiana Oribek (Bilbao Food Safari) Kirol Portuan nabarmen den utzikeria azpimarratu du eta egoera hori hobetzeko beharrari buruz eztabaidatu dute.

#### 4. Hurrengo urratsak:

- **Enpresen Kontsulta Foroa deitzea maiatzaren 22rako.** Bertan, sektoreko ordezkariak mahai sektorialetan jasotzen diren proposamenak lehenetsiko dituzte.

#### INTERPRETAZIO-ZENTRO, GIDARI ETA BIDAIA-AGENTZIEN MAHAIA (2024-04-09)

ERABAKIAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Bilerako aktaren zirriborroa bidaltzea.	Arloko teknikariak	Bileratik aurrera
2. Turismo Arloari jakinaraztea. DEAPIE ibilbideen esteka berrikustea	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera
3. Datu-baseak: Getxokoak ez diren enpresen helbide elektronikoa egiaztatu eta sartzea mezu elektronikoen bidez.	Arloko teknikariak	Bileratik aurrera
4. Arriluce Hotelarekin hitzordu bat adostea udalerrin barruan duen	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera



estrategia ezagutzeko.		
<p>5. Hauei buruzko informazioa bidaltzea:</p> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Udaleko webgunean DEAPIE atalera sartzen diren erabiltzaileen kopurua.</li><li>2. Getxoz gozatzeko planak 2023: gaualdiak eta itsaso eta irristaketaren sektorearen bilakaera.</li><li>3. 2023ko Gurutzaontzien informazioa (helduerak)</li><li>4. BasqueTour zerbitzuaren ekintza-plana.</li><li>5. Portu Zaharreko Emakumeen Etxea erabiltzea.</li><li>6. Hondartzetako txiringitoei buruzko informazioa.</li></ol>	Zerbitzuko teknikariak	Bileratik aurrera